

Zinema → EstreinaldiakRainer Wenger irakaslea (eskuinean) bere ikasle bati *arau berriak* azaltzen. **BERRIA**

Laugarren Reich-erako bidea

Dennis Ganselen 'Die Welle' estreinatuko dute gaur, nazismoaren itzuleraz diharduen film entzutetsua

Xabier Martin

Alemanian hautsak harrotu ditu. Ez alferrik, egungo gizartearen nazismoa itzultzeko baldintza egoiak ote dauden aztertzen du *Die Welle* obrak; Arabara, Bizkaira, Gipuzkoara eta Nafarroara *La Ola* izenburuarekin iritsiko da gaur, gaztelaniaz. *Napola*-n (2004) ere intolerantziaren aritu zen Dennis Gansel, eta orain Todd Strasserren nobela aprobetxatu du kezkatzen duen gaia berriro ere aztertzeko.

1967ko udazkenean Kaliforniako institutu bateko irakasle batek esperimentu bat egin zuen ikasleekin Hitlerren Alemania nola sortu zen azaltzeko. Ultraeskuindar diziplinako sistema bat ezarri zuen bere eskoletan, ikasleek askatasunak ezabatuz, eta derigorrezko batasuna ezarri. Esperimentuaren izena *The Third Wave* (Hirugarren olatua) izan zen. Kontua da egun gutxitan irakasle hark esperimentua bertan behera utzi behar izan zuela ikasleek jarrera aldaketa ikusita: elkar zelatatzen hasi ziren, eta indarkeria erabiltzeari ekin zioten taldeetik at geratutako ikaskideen aurka.

Esperimentu bera gaur egungo Alemanian, bere jaioterrian, iru-

Ikasleak elkar zelatatzen hasiko dira, luze gabe indarkeria azalduz. **BERRIA**

dikatu du Ganselen, oraindik ere bideragarri ikusten duen sistemaren arriskuak ohartarazteko. Alemanian film ikusiena izan da *Die Welle* hainbat astetan, nazismoarekin lotutako produktuen gaineko interesa lagun. Baina kritikaren babesa ez da hainbestekoa izan. Sundanceko zinemaldian aurkeztu zenetik, txaloak (mezuari emandako txaloak) bezainbeste kritika gogor jaso ditu *Die Welle*-k. Filmari leporatzen dioten bekatu okerrera sinesgarritasunarekin dago lotua. Ganselen erritmo narratibo bizian azaldu du istorioa halabarrez, oso egun gutxian gertatzen baita banakoaren jarrera aldaketa. Azkartasuna sinesgarritasunaren aurka doa kasu honetan.

Esperimentua eta tragedia

Goiburu totalitarioak nola sortzen diren azaltzeko Rainer Wenger (Jurgen Vogel) irakasleak

martxan jarri du esperimentu bat bere eskolan. Diziplina, erkidegoa, identifikazioa eta beste hainbat ideiekin hasitakoa benetako mugimendu bihurtuko da: *Olatua*. Hirugarren egunerako ikas-

Alemanian film ikusiena izan da 'Die Welle', baina kritikak ez du hainbeste babestu

leak mehatxuka hasiko dira, eta indarkeria agertzean irakasleak dena geratu nahi izango du, baina beranduegi izango da...

Kritikari gehienek aburuz, parrizko errazegiak eta elkarrizketa esplikagarriak dira filmaren arazo handiena. Hots, agerikoegia da, ikusleari ez zaio hausnarketarako tarterik uzten. Mezu argia dauka, eta mezu hori helarazteko bidea are argiagoa da pertsonaien ahotan, aukeran errazegia.

30eko eta 40ko hamarraldietan

Sturmabteilung nazien taldeak *Alkandora Arreak* gisa ezagutu ziren Alemanian; Italiako faxistek *Alkandora Beltzak* gisa egin zituzten euren erasoak; eta Euskal Herrian falangisten alkandora urdinak askok oroitzen dituzte oraindik. *Die Welle*-n Rainer irakaslearen ikasleak alkandora zuriz jantziko dira, batasuna adierazteko, taldea nabarmentzeko. Irudi eraginkorra da hori, eta alde horretatik egileak asmatu du sinbologiarekin.

Baina istorioa hitzen bidez garatzen du batez ere; pertsonaiak oso manikeoak dira, askoren ustez. Irakasleak berak ere ez du aparteko misteriorik; esaterako, *Dead Poets Society* (Peter Weir, 1989) filmeko irakaslearen (Robin Williams) sakontasunik ez du inondik inora. Etorrin turkiar batek taldean sartzeko baliatuko du esperimentua, eta ordu arte bakartua egon den ikasle herabe bati erabateko interesa piztuko zaio ideia berri hori ikusirik.

Beraz, iraganean jazo zena azaldu aldera, baztertuak izango dira mugimendu berriaren alde egingo dutenak lehen-lehenik. Euren oinarriak dituztenek amore emango dute. Negozioa egiteko bidea ikusten dutenak ere izango dira, baita aldaketaren aurka altxatzen direnak ere. Gehienak, ordea, sistema berrian murgilduko dira hitzik esan gabe.

Baina gaitzetsi nahi duen horretan erortzen da filma, kritikak dioenez: hausnarketa gabezia, aurreiritzietan hain zuzen.

'Hunger' filma ikus daiteke Baionan, Bobby Sands presoaren azken egunak

Steve McQueenen obra Cannesen saritu zuten, eta Donostiako Zinemaldian ere eman zuten Zabaltegi atalean

X.M

Bobby Sands preso irlandar errepublikarraren bizitzaren azken sei asteak ditu ardatz Steve McQueen ingelesak zuzendutako *Hunger* filmak. Cannesko zinemaldian Urrezko Kamera saria jaso zuen McQueenek Un Certain Regard sailean. Donostiako Zabaltegi ere ikusi ahal izan da aurtten, baina Euskal Herrian ez zuen saririk jaso, harrera oso ona izan zuen arren. Orain Baionako L'Autre zinemari jarri dute ikusgai.

Ipar Irlandako espetxe batean gertatzen da Steve McQueenen *opera prima*. 1981ean, IRAko hainbat kidek gose greba luzeari ekin zioten Maze presondegian, euren estatus politikoaren alde, preso baldintzak hobetzearen alde. Eta borroka horretan Bobby Sands izan zen burua, gose greba muturreraino (heriotzaraino) eramanezuenetako bat; gero errepublikarren artean ikono bihurtu zen.

Polemika piztu gabe

Erresuma Batuan *Hunger*-ek ikamika piztuko zuela esan zuten askok, gai politikoan barna sartzen delako. Baina ez da arazo handirik sortu. Bobby Sandsen bizitzaren azken egunak modu adimentsuan azaldu ditu egileak; arantza politikoak saihestu ditu bederen.

Dena den, kritikak berezko estiloa onartu dio McQueen zuzendariari. Lehen planoak, kamera desenfokatuak, plano finkoak..., bisualki egileak arriskatu egin duela esan daiteke, zauriak erakutsi aldera, sufrikarioa gerturatu aldera. Soinua ere, modu berean erabili du, adibidez guardien borrek burdinaren kontra jotzerakoan ateratzen duten burrunba baliatuz eritimoa jartzeko. Fienen, arlo bisuala eta soina modu narratiboan erabili du.

Baina Steve McQueenek neutraltasun politikoan mugi nahi izan du une oro. Txanponaren alde batean preso batek jasotzen duen jipioa dago, adibidez, eta beste aldean autoan lehergailua jarri ote dioten begiratutako behar duen polizia.